Musikagileen promoziorako dirulaguntzak

2026

INFORMAZIO OROKORRA

Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak Etxepare Euskal Institutuaren diru-hornidura bat du 2026 urtean jada gauzatutako edo gauzatuko diren euskal konpositoreen eta hauen musikaren sustapen eta kanpo difusioarekin lotutako ekintzak babesteko, beti ere, aipatutako jarduera euskararen eremu geografikotik at burutuko bada. Laguntza honen helburua musikagilearen garraio-, ostatu- eta mantenu-gastuak diruz laguntzea da.

Halaber, MUSIKA BULEGOAk dirulaguntza hauek eskatzeko deialdia ireki du:

DEIALDIAREN OINARRIAK

- Deialdian parte hartu ahal izango dute behintzat honako baldintza hauetako bat betetzen duten pertsonek:
  1. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) erroldatuta dauden pertsonek.
  2. Musikagileak elkarteko bazkideek, EAEn erroldatuta egon zein ez.

  Musikagileak elkarteko bazkideek lehentasuna izango dute laguntzak esleitzeko orduan, gainerako eskatzaileen aurretik.

- Eskabideak aurkezteko epea azaroaren 24ean amaituko da, 23:59an.

- Interesdunek eskabide-inprimakia behar bezala beteta eta bertan eskatzen den dokumentazioarekin batera bidali beharko dute administrazioa@musikabulegoa.eus helbide elektronikora (ikus "Eskabidea-Formulario" deialdiaren e-mailean).

- 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean dagoeneko egin diren edo egingo diren jarduerak aurkeztu ahal izango dira.

- Konpositore berak gehienez bi jarduera desberdinetarako laguntzak eskatu ahal izango ditu, baina laguntzak banatzerakoan ahalik eta onuradun gehien egoteari emango zaio lehentasuna.

INFORMAZIO OSAGARRIA

- Laguntza hauek musikagileen mugikortasuna sustatzera bideratuta daude, beren pertsonaren edo beren musikaren sustapen-ekitaldietara joan daitezen (entseguak eta interpretazioak, beren obren aurkezpenak, grabaketa saioak, beren musikaren inguruko hitzaldiak eta tailerrak, etab.). Konpositoreek modu aktiboan parte hartzen duten jarduerei emango zaie lehentasuna.

- Onuradunaren bidai-, ostatu- eta mantenu-gastuak baino ez dira onartuko. Beste edozein kontzepturekin lotutako gasturik ez da onartuko (katxeak, kontzertuen ekoizpena, etab.).

- Hauek dira emango diren gehieneko zenbatekoak:

Bidaiak Estatu espainiarrean (EAEtik eta Nafarroatik kanpo)
350€ (150€ bidaia + 200€ egonaldia eta dietak)
Bidaiak Europan
600€ (300€ bidaia + 300€ egonaldia eta dietak)
Bidaiak Europatik kanpo
800€ (500€ bidaia + 300€ egonaldia eta dietak)

- Diruz lagunduko den hotel-gau bakoitzeko gehieneko zenbatekoa 100 €-koa izango da (adibidez: onuradunak bi hotel-gau erreserbatu baditu, 300€-ko kostuarekin, 200€ ordainduko zaizkio).

- Diruz lagunduko den egun bakoitzeko gehieneko dieta 50 €-koa izango da.

- Jardueren eta ordainagirien argazkiak formularioan adierazitako irudi-formatuetan aurkeztu behar dira. PDF, Word edo beste formatu batzuetan aurkeztutako ordainagiriak baztertu egingo dira.

- Ez da laguntzarik emango programatuta zeuden baina bertan behera geratu diren jardueretarako.

- Hautatutako proiektuek eta laguntza ekonomiko hau jasotzen dutenek ezin izango dute Etxepare Institutuaren Nazioarteko Musika Biretarako dirulaguntzarik jaso jarduera berberarentzat.

Ayudas para la promoción de compositores/as

2026

INFORMACIÓN GENERAL

Euskal Herriko Musika Bulegoa cuenta con una dotación económica del Instituto Etxepare para apoyar las distintas actividades que organicen los y las compositoras de promoción y difusión de su música o de sí mismos durante el año 2026, a nivel internacional o fuera del ámbito territorial del euskera. El objetivo de estas ayudas es subvencionar los gastos de transporte, alojamiento y manutención del beneficiario.

Por ello, MUSIKA BULEGOA abre la convocatoria de presentación de solicitudes a estas ayudas:

BASES DE LA CONVOCATORIA

- Podrán participar en la convocatoria las personas que cumplan al menos alguno de los siguientes requisitos.
    1. Personas empadronadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV).
    2. Personas socias de la asociación Musikagileak, independientemente de que estén empadronadas o no en la CAPV.

Las personas socias de la asociación Musikagileak tendrán prioridad en la adjudicación de las ayudas frente al resto de solicitantes.

- El plazo para la presentación de solicitudes finaliza el 24 de noviembre, a las 23:59.

- Los/as interesados/as deberán enviar el Formulario de Solicitud debidamente cumplimentado y acompañado por la documentación requerida en el mismo a la dirección electrónica administrazioa@musikabulegoa.eus (véase el documento adjunto "Formulario de Solicitud" en el email de la convocatoria).

- Se podrán presentar actividades que ya han tenido lugar o que se celebrarán entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2026.

- Un mismo compositor podrá solicitar ayudas para un máximo de dos actividades diferentes, aunque se dará prioridad a la mayor diversidad posible de beneficiarios en el reparto de las ayudas.

INFORMACIÓN COMPLEMENTARIA

- Estas ayudas están destinadas a fomentar la movilidad de los y las compositoras para que acudan a actos promocionales de su persona o su música (ensayos e interpretaciones, presentaciones de sus obras, sesiones de grabación, conferencias y talleres que giren en torno a su propia música, etcétera). Se dará prioridad a las actividades en las que las personas compositoras tomen parte de forma activa.

- Solo se cubren los gastos de traslado, alojamiento y manutención del beneficiario. No se aceptarán gastos relacionados con cualquier otro concepto (cachés, producción de los conciertos, etc.).

Las cuantías máximas que se concederán son las siguientes:

Viajes en el Estado español (fuera de la CAV y Navarra)
350€ (150€ viaje + 200€ alojamiento y dietas)
Viajes en Europa
600€ (300€ viaje + 300€ alojamiento y dietas)
Viajes fuera de Europa
800€ (500€ viaje + 300€ alojamiento y dietas)

- La cuantía máxima por noche de hotel que se subvencionará es de 100€ (ejemplo: si el beneficiario reservó dos noches de hotel con un coste total de 300€, se le abonarán 200€)

- La dieta máxima que se abonará por día es de 50€.

- Las fotos de las actividades y de los recibos justificativos deben presentarse en los formatos de imagen indicados en el Formulario. Se descartarán los recibos presentados en PDF, Word u otros formatos.

- No se aceptarán solicitudes para aquellas actividades que estaban programadas pero que se han cancelado.

- Los proyectos que sean seleccionados y reciban esta ayuda económica no podrán optar a las Subvenciones para Giras Internacionales de Música del Instituto Etxepare para la misma actividad.